



Joseba Egibar

Andoain, 1959. EAJko eleduna Eusko Legebiltzarrean eta GBBko presidentea. Transbertsalitatea hitzaren -eta ariketaren- harian *transbertzaleak* hitza aipatu digu ironiaz: “Mario Onaindia eta Ramon Jauregi sozialistek kaleratu zuten postnazionalismo kontzeptuaren ordezkioa da transbertsalitatea. Euskal abertzaleak izatetik espainiar hiritar izatera pasa gaitezen”. Alderdiaren bidez eta Jaurilaritzaren proposamenaz hauxe esan digu: “Alderdiarena ez da ponentzia soilak, ez da erakuslehoan jartzen diren kartak. Unean uneko koiunturaz eztabaidatzeaz gain, pauso estrategikoak hezuramaitzen saiatu gara alderdian. Lehendakariaren bide orria horren isla da, arlo instituzionalean bide eta kudeaketa egiteko proposamena”.

«Ibarretxeren planteamendua herri honen historiara pasako da»

MIKEL ASURMENDI

Argazkiak: Karlos Corbella

Josu Jon Imazek “ETA/Batasunaren deslegitimazioan EAJk lider izan behar duela” esan zuen Gudari Egunean. Hitz hauek hizpide hasi dugu elkarrizketa Joseba Egibarrekin: “Herritarrak dira batzuen nahiz besteen jardura politikoa legitimatzen edo deslegitimatzeko dutenak” esan digu berak. Galdera zuzenak etorri dira segidan.

Politikariari al dagokio inoren jardura politikoa legitimatzea?

Ez. Politikoak bere bidea jorra dezake, besterik ez. Herriak badaki zeinek zer eskaintzen duen. Zorionez, herri honetan bide politiko demokratikoei ubide nagusia hartu dute.

Imazek proposatu bidea ez da zurea...
Imazen hitzak Gudari Egunean testuinguruan ulertu behar dira, guda-

ri haiek Jaurilaritzaren legitimazioa zuten, egun batzuentzat gudariak direnak ez.

Bien herriak edo aberriak ez dira berak Imazen hitzetan.

Herri bera da. Gero, bakoitzak herri-tartasuna edo abertzaletasuna bere modura ulertzen du. Egun garbi dena da ETAREN jardunbideak ez duela toki-rik herri honetan.

Aurreko hitz hauek bake eta normalizazio prozesu politikoaren testuinguruan ulertu behar dira. Izan al da prozesurik?

Ahalegina eta zerbait gehiago izan da.

Bake eta normalizazio politikoa binomio bateraezinak ote dira? Zer ondorio ateratu duzu zuk zeuk beretik?

Prozesuan alderdi sozialistaren eta ezker abertzalearen ordezkariak betidanik adostu dutena islatu da. Alderdi sozialistaren negoziazio eskema Aljeriakoa bera dela gaur egun. Hau da: “Euskal arazoaren akordioa lortu behar baldin badut, nahiago dut ETArekin hitzartzea EAJrekin baino. Besteak beste, autodeterminazioaren eskubidea gakoa bada, akordio bat ematen bada, EAJk ez dit akordiorako eragozpenik jarriko. Eta bentaja bat dauka, ETArekin akordioa lortuko banu, bakea berekin dakart”. Alderdi sozialistaren eskema hori da oraindik ere.

Baina premisa horrek ez du funtzionatu beste behin ere, antza.

Ez, baina eskema hori da. ETAK beste muturrean hauxe dio: “Nik badakit politikoki ez dudala herri

NAZIONALISMO KONSTITUZIONALA ETA TRANSBERTSALITATEA

“Herri hau ez da sartuko Gernikako Estatutuaren birnegoiazioan”

ELAko Jose Elorrietak “Euskal instituzioak lobbyen menpe daude” esan berri du orriotan.

Nazionalismo instituzionala egonkortu eta neoestatutismoa ateratzeko asmorik ez duela dio. Ez da egia ez zuzena. Ez litzateke zuzena izango ere, guk ELAri “zure gehiengoarekin hainbat arlotan oso eroso zaude” leporatzea. Nik ez dut ELAren aparteko ekimenik ikusten egungo egoera gainditzeko. Kazetariak galdetzen diotuzue: “LABekin harremanak zertan daude?”. “LABekin ezinezkoa da akordio minimoa lortzea” erantzuten du Elorrietak. Sindikalgintzan ere ez dago akordio minimorik. Herri baten ibilbidean gizarte ereduak aldatzeko denbora behar da, 30 urte ez da nahikoa. Kontua da pausoetan asmatzen den ala ez. Perspektiba horretatik begiratuta, pausoak emango ez balira EAJk bere norabidea galduko lukeela esango nuke. Baina nik garbi ikusten dut herri hau ez dela sartuko Estatutuaren birnegoiazioan eskumenak negoziatio gai izateko. Auzitan dagoena ez da eskumenen kontua, herri honek hartu zuen bidean jauzi kualitatiboa eman nahi du, herri ezagutza eta erabakitze eskubidea lortzeko jauzia. Horiek dira jomugak.

Transbertsalitatea erabili da zeregin horretan. Transbertsalitateak balio al du marko juridiko-politikoak gainditzeko?

Transbertsalitatea diferenteen arteko akordioa da. Baina diferenteak zertan? Batek euskal nortasuna eta besteak espainiar nortasuna duelako? Horretan gara diferenteak edo badaude aldez aurretik diferentzia batzuk? Hori da benetako debatea. Eskubide demokratikoen debatean zuk, nik eta hirugarren hark bere proiektua gauzatu ahal izateko baldintza berdinetan aritzea da transbertsalitatea. Horrek, noski, elkarren arteko akordioa eskatzen du, akordioak baina aldez aurretiko errespetu baten ondorio izan behar du, euskal zein espainol nortasunak baldintza berdinetan kudeatzea. Hori da alderdi abertzaleen helburua, baina alderdi sozialistak ez du hori ikusten. Hauek euskaldunen arteko akordioa lortu nahi dute eta Espainiara joan. PSE-EE espainol unionismoaren ordezkaria da. Nik lortu nahi dudana Madrilekin akordioa da, eta ez PSE, kasurako, gutxietako, berdintasun eskubidea lortzeko baizik. Ondoren, behin eskubidea aitortuta, kontsultaren ariketa egin beharko dugu herritar guztien artean. Horrek gauzatuko du transbertsalitatea.



honen etorkizuna negoziatzeko zilegitasun demokratikorik. Baina esku artean dudak aktibo politiko baka-rrak, su-etenak, mahaiaren alde batean esertzea eskaintzen dit”. Hartan, Espainian agintzen duen Gobernuak esertzen du parean. Bien artean dauden alderdiak, sindikatuak eta gizarte eragileak berriz desagertzen dira. Finean Espainiako Gobernuak hau dio: “Nik zer aurreratzen dut EAJrekin edo Ibarretxeren plana negoziatzeko? Akordio bat lortuta ere, ez dit bakea ziurtatzen”.

Zertarako izan da orduan EAJ Loiolako bileretan?

EAJ deitua izan zen hain justu eskema hori porrot egiteko zegoen bezperan.

ETak Zutabe 112. zenbakian baina hauxe dio: ETak ez dio beste su-eten bati –negoiazio prozesu bati– berriz eki-

“Nik ez dut ezer proposatu, hausnarketa egin behar dela esan dut. Horrek, forma dela eta beste, urduritasuna sortu du”.

nen euskal alderdi politikoen artean “akordio politiko erresolutiboa” ixten ez bada.

ETak “nire su-etenek ez dute ziurtatzen prozesu politiko bat” dio. Eta hori oso-oso larria da. Akordio politikorik ez badago “nik neurtuko dut su-etenaren tamaina” dio ETak. Berak esan du, ez guk. ETak akordio politikoaren balotasuna neurtu nahi du, akordioak balio duen “guk neurtuko dugu” dio. Hori Anoetako proposamena pikutara bidaltzea da.

Prozesuaren zero puntuan al gaude?

Ez. Behin ere ez da zero kotara itzultzen. Kanpamendu basea hasieran baino gorago geratzen da, elkarriketa guztiek dute beren balioa, nahiz eta akordioarekin ez amaitu. Elkarriketa prozesu batean, batek nahiz besteak aitortu eta onartu behar ditugu aurrean esertzen denaren mugak. Prozesua muga kontuaren arabera garatzen da, batzuek muga batzuk ditugu eta besteek beste batzuk.

Muga horiek mugiezinak al dira?

Mugitzeko modukoak dira, baina negoziatio prozesu batean bakoitzak aldaezinak bezala azaltzen ditu. Prozesuak zu mugitzera behartzen zaitu. Elkarriketa hauen edukiak nik ez ditut ezagutzen, baina aurrerapausoak eman direla uste dut.

Ibarretxeren bide orria heldu da ondoren. EAJri geratu zaion azken aukera edo?

Ez. Ibilbide bati jarraituz, koherentziaz, arazoari irtenbidea eman dakiokela ikusten du Ibarretxek. Indarkeria arazoa da, baina indarkeriarik gabe ere arazo politikoa dago eta berau konpontzeko bide bat proposatu du. Ez dakit zein epetan lortuko den, baina perspektiba historiko ez luze batean Ibarretxeren planteamendua —ez da elektoral ez estrategia motzekoa— herri honen historiara pasako da. EAEko lehendakariak eta Jaurlearitzak jauzi historiko bat ekarriko dute.

Urte bateko epean, ETA indarrean dagoela?

Urte bateko epea, Zapaterok hauteskundeak irabaziz gero, inbestidura plenoan haxe esan dezan: “Badaukat arazo politikoa bat eta irtenbidea emateko ezinbestekotzat jotzen dut herritar horiek erabakitzen dutena aintzakotzat hartzea. Hori pauso bat da. Gutxieneko akordio batez ari da lehendakaria, ez testu artikulatu batez. Akordioa baldin badago aurrera —Legebiltzarraren akordioarekin—, akordiorik ez badago prozesu bat abian jartzeko herri galdetuta proposatu du Ibarretxek. Galdetuta ez da helburua abiapuntua baizik.

Testuinguru honetan Na-Bai formula proposatu duzu hegoalde osoarentzat. Batzuek ez dute ondo ikusi, formetan hasteko, ezta EAJn ere.

Begira historia nola idazten den, ez azken hamar urtekoa azken bi asteotako historia baizik. *Garan* elkarrizketa egin zidaten, behin eta berriz gaiaz galdetuz. Nik esan nuen hauteskundeetan aurrean alderdi politiko guztiak behartuta gaudela gogoeta egitera. Hauteskunde hauek ez ditugu arrotzak balira hartu behar, Zapaterorenak eta Raxoirenak dira, baina guk ere asko dugu jokoan. Areago diot: hauteskundeetan emaitzak lehendakariaren proposamena hankaz gora botatzeaz gain lehendakaria bera lurperatzeko baliatu nahi dute unionis-

tek. Alderdi abertzaleok ez dugu unionistek bezala egoera desafiokan hartu behar, baina egoerak “guztiok hausnarketa egitera behartzen gaitu”. Kazetariak berriz: “*Tú que pides, que todo el mundo vote al PNV?*”. Ez. “*Se impone la reflexión*” erantzun nion.

Vianako Nafarroa Oinezen bihar-munean gaia prentsan agertu zen berriz.

Galdera bera berriz ere. Nire erantzuna: “NaBai formula itxita dago”. “Beste lurraldeetan antzeko zerbait proposatzen duzu?”: “Ez” nik. Nik ez dut ezer proposatu, hausnarketa egin behar dela esan dut. Horrek, forma dela eta beste, urduritasuna sortu du. Dena den, garbi daukat alderdi politikoek hausnarketa hori martxan jarrita zeukatela eta gertatuak alderdiak erabakiak hartzea behartuko dituela nolabait.

“ETAk akordio
politikoaren baliotasuna
neurtu nahi du, eta hori
Anoetako proposamena
pikutara bidaltzea da”

Egibarrek proposamen liluratzailerak egiten omen ditu, baina finean alderdiak onartzen ez dituenak.

EAJk ez du aukera hori baztertu. Mahai gainean daukagu, gure gogoeta eta erantzukizuna da. Nafarroan formula itxita dago. EAEn zer? Lehendakariaren ibilbide orria defendatzen dugunok hausnarketa egin behar dugu, bakoitzak bere aldetik. Halaber, duela lau urteko Bergarako proposamena gogoratu da orain. Proposamena hauteskundeetan bezperan egin zuen ezker abertzaleak. ANVk aurkezteko asmoa duela esan du, Batasuna —Barrenaren hitzetan— egoerari nola aurre egin aztertzen ari da. Zapaterori eta Raxoiri mezu zehatza bidaltzeko ordua da. ■

<http://www.argaia.com/argaia-astekaria/2110>
helbidean, elkarrizketaren bideoa.